



EBAZPENA, 2023KO MARTXOAREN 15EKOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ARGITARATZEN DIREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA ARITZEKO ALDI BATERAKO LANGILE-BEHARRAK ESTALTZEKO LAN-POLTSETAN AGERTZEN DIREN PERTSONEN BAREMAZIOEN BEHIN BETIKO ZERRENDAK, LAN-POLTSAK EGUNERATUTA BAITAUDE.

Justizia Administrazioiko zuzendariaren 2022ko uztailaren 27ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsak ireki ziren.

2022ko azaroaren 29an, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden aldi baterako langileen beharrak betetzeko lan-poltsetan onartutako eta baztertutako langileen behin betiko zerrenda onartu zen.

Justizia Administrazioiko zuzendariaren 2022ko abenduaren 16ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak estaltzeko lan-poltsetan daudenen behin-behineko zerrenda barematuak onartu ziren, eta hilabeteko epea eman zen zerrenda horretako edozein daturi buruzko erreklamazioa, behar bezala dokumentatua, aurkezteko Justizia Administrazioiko Zuzendaritzan.

Alegazioak aurkezteko epea amaituta eta horiek aztertuta, bidezkoa da behin betiko ebazpen barematua ematea.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzura aritzeko aldi baterako langile-beharrak estaltzeko lan-poltsetan agertzen ziren pertsonen baremazioen behin betiko zerrendak onartzea (eranskinean jasotzen dira zerrenda horiek), eta www.justizia.eus web-orrialdean, Justiziako langileen Atarian eta Enplegu Publikoaren Atarian argitaratu daitezen agintzea.

- I. eranskina.- Zati batean baietsitako eta ezetsitako alegazioen zerrenda.
- II. eranskina.- Behin betiko zerrenda, alfabetikoki
- III. eranskina.- Behin betiko zerrenda, puntuen arabera

Bigarrena.- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsua aurkezteko, horretarako prestatutako inprimaki elektronikoa erababili beharko da, helbide honetan eskuragarri egongo dena: www.euskadi.eus/zerbitzuak/1091007.

Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik hiru hilabete igarotakoan ebazpenik ematen ez bada, errekurtsua ezetsita dagoela ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea zabalik geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 15a

Jon Arturo Uriarte Unzalu

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

RESOLUCIÓN DE 15 DE MARZO DE 2023, DEL DIRECTOR DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA, POR LA QUE SE HACEN PUBLICAS LAS RELACIONES DEFINITIVAS BAREMADAS DE LAS PERSONAS INTEGRANTES DE LAS BOLSAS DE TRABAJO PARA LA COBERTURA DE NECESIDADES TEMPORALES DE PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO, TRAS LA ACTUALIZACIÓN DE LAS BOLSAS DE TRABAJO.

Por Resolución de 27 de julio de 2022, del Director de la Administración de Justicia, se procedió a la apertura de las bolsas de trabajo para la cobertura de necesidades temporales del personal al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En fecha de 29 de noviembre de 2022, se aprueba la relación definitiva de personal admitido y excluido a las bolsas de trabajo para la cobertura de necesidades temporales del personal al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco

La Resolución de 16 de diciembre de 2022, del Director de la Administración de Justicia, aprobó las relaciones provisionales baremadas de las personas integrantes de las bolsas de trabajo para la cobertura de necesidades temporales de personal al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, concediendo un plazo de un mes para formular ante la Dirección de la Administración de Justicia, reclamación, debidamente documentada, sobre cualquiera de los datos contenidos en dicha relación.

Cerrado el plazo de alegaciones y examinadas éstas, procede dictar resolución definitiva baremada.

Por todo ello,

RESUELVO

Primero.- Aprobar las relaciones definitivas baremadas de las personas integrantes de las bolsas de trabajo para la cobertura de necesidades temporales de personal al servicio de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que se adjuntan como anexos, ordenando

su publicación en la página www.justizia.eus y en el Portal de personal de Justicia, y en el Portal de Empleo Público de la persona candidata.

Anexo I.- Relación de alegaciones estimadas parcialmente y desestimadas.

Anexo II.- Relación definitiva alfabética

Anexo III.- Relación definitiva por orden de puntuación

Segundo.- La presente Resolución no agota la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Justicia en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación. Para presentar el recurso de alzada deberá utilizarse el formulario electrónico elaborado al efecto, que estará disponible en www.euskadi.eus/servicios/1091007.

Si transcurriesen tres meses desde la interposición del recurso de alzada sin que recaiga resolución, se podrá entender desestimado, quedando expedita la vía contencioso-administrativa.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de marzo de 2023

Jon Arturo Uriarte Unzalu

DIRECTOR DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA